

## Pribatuen Iragarpenak

### SAN JOSE OBRERO KONSUMO KOOPERATIBA

IRAGARPENA, San Jose Kontsumo Kooperatiba  
desegiteari buruzkoa. 14257

## Xedapen Orokorrak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

#### Zk-3573

300/1999 DEKRETUA, uztailaren 27ko, Administrazio Parke Higikorra arautzen duena.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituen otsailaren 16ko 99/1999 Dekretuak honako egiteko hauek ematen dizkio, bestek beste, Baliabide Orokoren Zuzendaritzari: «Administracioko ibilgailuak eta zerbitzuak antolatzea, kudeatzea eta administratzea poliziaena izan ezik, dagokion araudiaren arabera...». Egiteko horrek Parke Higikorri orduarte eman ohi zaion tratamendu bateratzailea aldatu du, bere esparruan sartzen baitzituen bai polizien alorra bai esparru administratibo hutsa zena, eta Herrizaingo Sailean jartzen baitzuen bion ardura. Dekretu horrek, Azken Xedapenetatik Lehenengoan, epe bat jarri zion Ogasun eta Herri Administrazio Sailari Administracioko Parke Higikorraren jarduteko arau berriak Jaurlaritzaren Kontseiluan aurkezteko, eta horixe da hain zuzen dekretu honek betetzen duen agindua.

Alor publikoak, oro har, eta polizia zerbitzuak, berriaz, hazkunde handia jasan duten azken urteotan. Eboluzio horrek aholkatu egiten du polizia zerbitzuko parke higikorraren azpiegitura eta Administrazio Publikoko gainerako parke higikorrarena bereiztea; eta azken honi dagokionez, komenigarria gertatzen da neurriko antolakuntza sortzea eta egitekoen banakuntza egokia egitea, kudeaketa eraginkorra eta baliabideen kontrol egokia bermatzeko, eta hori guztiori tratamendu homogeneoa bermatu behar dela ahaztu barik.

Dekretu hau hiru Kapitulutan osatzen da: I. Kapituluak dekretuaren beraren xeda definitzen du eta berrian emandako arauen eremua mugatzen du. Eremuak Administrazio Orokorra eta berari atxikitako Erakun-

## Anuncios Particulares

### COOPERATIVA DE CONSUMO SAN JOSE OBRERO

ANUNCIO de la disolución de la Cooperativa de Consumo San José. 14257

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

#### Nº-3573

DECRETO 300/1999, de 27 de julio, por el que se regula el Parque Móvil de la Administración.

El Decreto 99/1999, de 16 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, atribuye a la Dirección de Recursos Generales, entre otras funciones, «La ordenación, gestión y administración de los servicios y vehículos del Parque Móvil de la Administración, excepto el policial, ...». Esta atribución ha venido a alterar el tradicional tratamiento unitario del parque móvil, que englobaba en su seno tanto el área policial como la estrictamente administrativa y residencia la su conocimiento en el Departamento de Interior. El citado Decreto 99/1999, en su Disposición Final Primera, emplaza al Departamento de Hacienda y Administración Pública a elevar al Consejo de Gobierno una nueva regulación del Parque Móvil de la Administración, mandato que viene a cumplir el presente Decreto.

El dimensionamiento alcanzado por el sector público y particularmente el relativo al servicio policial ha aconsejado separar la infraestructura de éste de la del resto del parque móvil de la Administración Pública y centrándose en esta, conviene articular una organización proporcionada y una atribución de facultades que garantice la eficiencia en la gestión y un control adecuado de los recursos, sin olvidar la necesidad de garantizar un tratamiento homogéneo.

El presente Decreto se estructura en tres Capítulos: el Capítulo I define el objeto del mismo y delimita el ámbito de la regulación, que se circunscribe a la Administración General y los Organismos Autónomos ad-

de Autonomoak hartzen ditu bere barruan. Polizia alorra eta alor horren laguntzarako zerbitzuak bai eta lan administratibo hutsekin zerikusirik ez dutenak ere dekretu honetatik kanpo geratzen dira. Azkenik, finkatu egiten dira ibilgailu mota ezberdinak kategoriak, ibilgailuaren zertarakoa oinarri hartzen dela.

II. Kapitulua ibilgailuak erabiltzeko araubideaz aritzen da, eta Hirugarren Xedapen Osagarria osatzen da. Era horretan, Jaurlitzaren Kontseiluak Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeaz baliatuz eman ditzan arauen bidez, bermatu egiten da tratamendu homogeneoa Administrazio Publiko osoan. Halaber, ibilgailuak izendatzeko araubide bat finkatzen da, aurreko Kapituluan ezarritako sailkapena oinarri hartuta. Ibilgailuak erabiltzeko oro har ezarritako araubidean, hala ere, salbuespenak egin daitezke, baldin eta Herrizaingo Sailak segurtasun arrazoiengatik beharrezko irizten badio.

III. Kapituluan ibilgailuen parkea kudeatzearen ondoriozko gastuen araubidea finkatzen da, kontratacio alorreko eskumenak banatzen dira eta sortu egiten da Administrazioko Parke Higikorreko Ibilgailuen Erregistroa.

Azkenik eta Dekretuak tratamendu baterakorra lortu gura duenez, Sailek edo Erakundeeek bereganatu eta orain arte beroiek administratu dituzten ibilgailu guztiak Administrazio Parke Higikorran sartzeko agindua ematen da. Poliziaren parke higikorrari dagokionez, Herrizaingo Sailak eutsi egingo die kontratacio arloan orain arte izan dituen eskumenei.

Horien indarrez, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez eta Jaurlitzaren Batzordeak 1999ko uztailaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

#### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

##### *1. artikulua.* – Xeda.

Administrazioko Parke Higikorren barruan dauden ibilgailuak kudeatzeko araubidea zehaztea du xede Dekretu honek. Ondorengo artikuluetan finkatzen dira eremua eta mugak.

##### *2. artikulua.* – Eremua.

1.– Administrazioko Parke Higikorren honakoak sartuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administracio Orokorrak edo bere Erakunde Autonomoek beroiaren erabilpenerako edo zerbitzu publikorako erosio edo alokatutako ibilgailu guztiak, beti ere 4. artikuluan agertzen den sailkapenaren arabera.

critos, excluyéndose el área policial y los servicios de apoyo a la misma y aquellos vehículos ajenos a labores puramente administrativas. Finalmente, se establecen las categorías en que se dividen las diferentes tipologías de vehículos, en atención a su destino.

El Capítulo II se refiere al régimen de utilización de los vehículos, el cual se completa en la Disposición Adicional Tercera, de manera que se asegura un tratamiento homogéneo en el conjunto de la Administración Pública, a través de las normas que en tal sentido dicte el Consejo de Gobierno, a través de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos. Asimismo, se establece el régimen de asignación de vehículos según la clasificación establecida en el Capítulo anterior. El régimen de utilización establecido con carácter general puede, sin embargo, excepcionarse por razones de seguridad apreciadas por el Departamento de Interior.

En el Capítulo III se establece el régimen de los gastos derivados de la gestión del parque de vehículos, se atribuyen competencias en materia de contratación y se crea el Registro de vehículos del Parque Móvil de la Administración.

Finalmente y en sintonía con el tratamiento unitario que pretende el Decreto, se ordena la adscripción al Parque Móvil de la Administración de aquellos vehículos que hayan sido adquiridos por los diferentes Departamentos u Organismos y que han venido siendo administrados por ellos. Asimismo y en relación al parque móvil policial, se mantienen las facultades que en materia de contratación venía ostentando el Departamento de Interior.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de julio de 1999.

#### DISPONGO:

#### CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

##### *Artículo 1.* – Objeto.

Es objeto del presente Decreto determinar el régimen de gestión del conjunto de vehículos integrados en el Parque Móvil de la Administración, con el ámbito y alcance definidos en los artículos siguientes.

##### *Artículo 2.* – Ámbito.

1.– El Parque Móvil de la Administración estará integrado por el conjunto de vehículos adquiridos o arrendados por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, destinados a su propio uso o servicio público, según la clasificación que se contiene en el artículo 4.

2.- Parke Higikorraren barruan sartuko dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaz kanpoko erakunde edo izaikiei atxikitako ibilgailuak, baldin eta Administrazioak izenpetutako akordio edo hitzarmenpean badaude.

**3. artikulua.**- Dekretuaren eremutik kanpokoak.

1.- Dekretu honen erabiltze-eremutik kanpo geratzen dira poliziaren zerbitzurako diren ibilgailuak bai eta Herrizaingo Sailari edo Euskal Herriko Poliziaren Ikastegi erakunde autonomoari atxikitako Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileek behar dituztenak ere, berariazko arauak izango baitituzte.

2.- Dekretuaren eremutik kanpo geratzen dira, halaber, izaera dela eta, Sail edo Erakundearen eginkizun nagusiarekin artez lotuta dauden zerbitzuak egiten dituztenak (ambulantziak, nekazaritza ibilgailuak, herriplanetarako ibilgailuak etab.), horietarako erosi baitira.

**4. atala.**- Ibilgailuen sailkapena.

1.- Honako kategorietan sailkatzen dira Administracioko Parke Mugikorreko ibilgailuak:

– A mota: Jaurlaritzako kideen zerbitzurako diren ibilgailuak.

– B mota: Administrazioko goi-karguen zerbitzurako ibilgailuak eta 131/1989 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriko 1. idatz-zatian aipatzen diren konfidantzazko edo behin-behineko pertsonearenak, baldin eta goi-karguen lansari-maila berdina badute.

– C mota: atxikipen iraunkorra ez dutela, administracioko organo ezberdinaren ohiko eginkizunak burutzeko ibilgailuak.

– D mota: administrazio izaerako eginkizunak gauzatzeko administrazio organo bati etengabe atxikitako eta, ondorioz, erabilpen orokorrekoak ez diren ibilgailu berezi edo arruntak. Dekretu honetako 2. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako ibilgailuak, halaber, kategoria honetan sartzen dira.

Egitura edo teknika-egokitzapenak behar dituztenak dira ibilgailu bereziak, hain zuzen ere erabilera bereziatarako direlako.

2.- A, B eta C kategorietan sartzen diren ibilgailuak eta ibilgailu horiek izan behar dituzten prestazioak zehaztea Ogasun eta Herri Administracioko Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio. D motaiko ibilgailu arruntak zehaztea, halaber, zuzendaritzaz horri dagokio.

2.- Estarán asimismo integrados en el Parque Móvil de la Administración aquellos vehículos asignados a órganos o entes ajenos a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en virtud de acuerdos o convenios suscritos por ésta.

**Artículo 3.**- Ámbitos excluidos.

1.- Quedan excluidos del ámbito de aplicación de este Decreto los vehículos destinados al servicio policial, así como los que precisen los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad adscritos al Departamento de Interior o a su organismos autónomo Academia de Policía del País Vasco, los cuales se regirán por su normativa propia.

2.- Se excluyen, así mismo, aquellos vehículos que, por su especial naturaleza, realicen servicios directamente relacionados con la función principal del Departamento u Organismo para cuyo fin sean adquiridos (ambulancias, vehículos agrícolas, vehículos de obras públicas, etc.).

**Artículo 4.**- Clasificación de los vehículos.

1.- Los vehículos integrantes del Parque Móvil de la Administración se clasifican conforme a las siguientes categorías:

– Clase A: integrada por los vehículos destinados al servicio de los miembros del Gobierno.

– Clase B: integrada por los vehículos destinados al servicio de los Altos Cargos de la Administración y del personal de confianza o eventual, al que se refiere el apartado 1 de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 131/1989, con nivel retributivo equivalente al de aquellos.

– Clase C: integrada por los vehículos destinados a la cobertura de las necesidades ordinarias de los diferentes órganos administrativos indistintamente, sin asignación permanente.

– Clase D: integrada por los vehículos, especiales o convencionales, que sean asignados de manera permanente a un órgano administrativo para la realización de tareas de naturaleza administrativa y queden, por tanto, sujetos a la utilización general. Se incluyen también en esta categoría los vehículos a que se refiere el apartado 2 del artículo 2 del presente Decreto.

Se entenderá por vehículos especiales aquellos que precisen, por su destino, de adaptaciones estructurales o técnicas.

2.- La definición de la tipología de los vehículos y las prestaciones de los mismos en las categorías A, B y C, corresponderá a la Dirección de Recursos Generales del Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como la de los vehículos convencionales de la Clase D.

## II. KAPITULUA

### IBILGAILUAK ERABILTZEKO ARAUBIDEA

**5. artikulua.** – Ibilgailuak erabiltzeko irizpide orokorra.

Administracioko Parke Higikorreko ibilgailuak Administrazio Orokorreko organoentzat eta bere erakunde autonomoen zerbitzu-eginkizunak betetzeko erabiliko dira, hots, administrazio-funtzioak egiteko edo erabiltzaien ordezketza egiteko bakar-bakarrik, salbu eta Dekretu honetan erabateko erabilpenerako ohartematen direnak.

**6. artikulua.** – Jaurlaritzako kideei izendatutako ibilgailuak.

A motako ibilgailuak txoferria eta guzti izendatuko dira beti eta Jaurlaritzako kideen zerbitzura egongo dira karguaren ondorioz beharrezko diren zerbitzuak egiteko.

Lehendakari eta bere ezkontideari, halaber, mota horretako ibilgailuak izendatuko zaizkie. Esleipen hori erabateko erabilpenerako egingo da.

**7. artikulua.** – Lehendakari ohiei esleitutako ibilgailuak.

Lehendakari ohiei izendatu beharreko ibilgailua, languntzaile-txoferria eta guzti, A motakoa izango da, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari ohien Estatutua arautzen duen urtarrilaren 12ko1/1999 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izendapen hori erabateko erabilpenerako egingo da, beharrezko denboraldirako, aipatutako Dekretuaren arabera.

**8. atala.** – Goi-karguei izendatutako ibilgailuak.

B motako ibilgailuak Administracioko goi-karguei izendatuko zaizkie eta 131/1989 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriko 1. idatz-zatian aipatzen diren konfidantzazko edo behin-behineko pertsonalari, baldin eta goi-karguen lansari-maila berdina badute, karguaren ondorioz beharrezko diren zerbitzuak egiteko. Ibilgailu kategoria hau, halaber, bitan banatzen da: B1 eta B2.

B1 ibilgailuak sailburuordeei izendatuko zaizkie eta 131/1989 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriko 1. idatz-zatian aipatzen diren konfidantzazko edo behin-behineko pertsonalari, baldin eta sailburuordeen lansari-maila berdina badute. B2 ibilgailuak zuzendariei izendatuko zaizkie eta 131/1989 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriko 1. idatz-zatian aipatzen diren konfidantzazko edo behin-behineko pertsonalari, baldin eta zuzendarien lansari-maila berdina badute.

Erabiltzaileak gidatzeko eragozpen fisikoak baditu eta Administracioko parke mugikorreko txferrak bidaude, txoferria eta guzti esleitu ahal izango zaizkie B motako ibilgailuak. Eragozpen horiek egiaztatuta eta kontrastatuta egon behar dute.

## CAPÍTULO II

### RÉGIMEN DE UTILIZACIÓN DE LOS VEHÍCULOS

**Artículo 5.** – Criterio general de utilización de los vehículos.

Los vehículos del Parque Móvil de la Administración están destinados a la satisfacción de las necesidades de servicio de los diferentes órganos de la Administración General y sus Organismos Autónomos, limitándose su utilización al ejercicio de las funciones administrativas o de representación de los usuarios, a excepción de aquellos que se asignen a plena disposición en los supuestos contemplados en el presente Decreto.

**Artículo 6.** – Vehículos asignados a los miembros del Gobierno.

Los vehículos de la Clase A se asignarán en todo caso con conductor y estarán al servicio de los miembros del Gobierno para la realización de los servicios precisos por razón de su cargo.

Asimismo, se asignarán vehículos de esta categoría al Lehendakari y su cónyuge. Dicha asignación se realizará a plena disposición.

**Artículo 7.** – Vehículos asignados a los ex Lehendakaris.

El vehículo, con asistente-conductor, que se asigne a los ex Lehendakaris, de conformidad con lo establecido en el Decreto 1/1999, de 12 de enero, por el que se regula el Estatuto del ex Lehendakari del Gobierno Vasco, pertenecerá a la Clase A. Dicha asignación se realizará a plena disposición, durante el tiempo que proceda, de acuerdo con el Decreto citado.

**Artículo 8.** – Vehículos asignados a Altos Cargos.

Los vehículos de la Clase B se asignarán a los Altos Cargos de la Administración y al personal de confianza o eventual, al que se refiere el apartado 1 de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 131/1989, con nivel retributivo equivalente al de aquellos, para la realización de los servicios precisos por razón de su cargo. Esta categoría de vehículos se subdivide, a su vez, en B1 y B2.

Se asignarán vehículos B1 a los Viceconsejeros y al personal de confianza o eventual, al que se refiere el apartado 1 de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 131/1989, con nivel retributivo equivalente al de aquellos y vehículos B2 a los Directores y al personal de confianza o eventual, al que se refiere el apartado 1 de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 131/1989, con nivel retributivo equivalente al de aquellos.

Dentro de las disponibilidades de choferes del Parque Móvil de la Administración, los vehículos de la Clase B podrán asignarse con conductor cuando el usuario tuviera impedimentos de naturaleza física, debidamente acreditados y contrastados, para la conducción.

**9. artikulua.**– Zerbitzu jakinetarako ibilgailuen izendapena.

C motako ibilgailuak zerbitzu jakin baterako erabili ahal izango dira. Dekretu honen esparruan dauden Sailei edo Erakundeei atxikitako langileek erabili ahal izango dituzte eta ez dira esleituko, inolaz ere, txoferra eta guzti. Baliabide Orokoren Zuzendaritzak adieraziko du bakotzean ibilgailu hauek izendatzeko procedura. Izendapena ibilgailu eskuragarririk egotearen baldintzaean gelditzen da.

**10. artikulua.**– Ibilgailuen etengabeko izendapena.

D motako ibilgailuak etengabe izendatuko zaizkie dagozkien organoei eta organoek berek zehaztuko du te erabiltzeko araubidea, betiere Dekretu honetan dauden arau orokorren esparruan.

**11. artikulua.**– Administrazioaz kanpoko erakunde edo izaikiei ibilgailuak izendatzeko modua.

Dekretu honetako 2. artikuluaren 2. idatz-zatiak aipatzen dituen ibilgailuak D kategorian sartuko dira.

**12. artikulua.**– Ibilgailuak eskatzeko era.

Sailek eta erakunde autonomoek ekonomia eta era-ginkortasuna oinarri hartuz eskatu beharko dituzte ibilgailuak eta, behar beste ibilgailurik ez dagoenean, Baliabide Orokoren Zuzendaritzak haztatuko ditu lehen-tasun-irizpideak. Baliabide Orokoren Zuzendaritzak, halaber, Administrazioko Parke Higikorreko ibilgailuak erabiltzeko araubideari buruzko beharrezko iritzi-tako jarraibideak emango ditu eta arrazoizko ibilgailu-kopuruari eusteko ardura hartuko du.

**13. artikulua.**– Erabiltzaileen betebeharak.

Erabiltzaileek arretaz erabili beharko dituzte ibilgailuak eta, berariaz, honakoak:

- Dekretu honetan ibilgailuak erabiltzeko emandako arauetako bera garatzeko eman daitezenei men egin beharko diete.

- Ibilgailuaren egoerari eta funtzionamenduari buruz ikus ditzaten gorabeherak jakinarazi beharko ditutte, betiere horretarako finka dadin prozedurari jarraituz.

- Norberari izendatutako ibilgailua beste edonork erabiltzeko baimenik ez ematea.

- Erabiltze-aldiak dirauen bitartean ibilgailua arretaz zaintzea.

- Erabiltzaileak ez du bere kabuz elementurik edo aparailurik jarriko ibilgailuan, ez du ibilgailu-konponketarik egingo ez eta eginaraziko ere.

- B motako ibilgailuen erabiltzaileek beharrezko berrikuspen teknikoak dagokien unean egiteko ardura hartuko dute eta ibilgailuak berak garbi izan beharko dituzte.

**Artículo 9.**– Asignación de vehículos de disposición.

Los vehículos de la Clase C podrán ser utilizados, por razón de servicio, por el personal adscrito a los Departamentos u Organismos incluidos en el ámbito de este Decreto y en ningún caso se asignarán con conductor. El procedimiento a seguir para la asignación de estos vehículos será determinado en cada caso por la Dirección de Recursos Generales y su dotación estará limitada por la disponibilidad existente en cada momento.

**Artículo 10.**– Asignación permanente de vehículos.

Los vehículos de la Clase D serán asignados a los órganos respectivos de manera permanente y corresponderá a éstos la determinación del régimen de uso, en el marco de las normas generales contenidas en este Decreto.

**Artículo 11.**– Asignación de vehículos a órganos o entes ajenos.

Los vehículos a que se refiere el apartado 2 del artículo 2 del presente Decreto pertenecerán a la categoría D.

**Artículo 12.**– Demanda de vehículos.

La demanda de vehículos por parte de los Departamentos y Organismos Autónomos deberá estar siempre informada por criterios de economía y eficiencia y corresponderá a la Dirección de Recursos Generales ponderar criterios de preferencia cuando los recursos disponibles resulten insuficientes. Asimismo, la Dirección de Recursos Generales dictará cuantas instrucciones sean precisas relativas al régimen de utilización de los vehículos del Parque Móvil de la Administración y velará por mantener un dimensionamiento razonable del mismo.

**Artículo 13.**– Deberes de los usuarios.

Los usuarios de los vehículos utilizarán éstos de manera diligente y, en particular, deberán:

- Respetar escrupulosamente las normas de uso contenidas en este Decreto y en las disposiciones de desarrollo que se dicten.

- Notificar, siguiendo el procedimiento que se establezca, las incidencias que adviertan respecto al estado y funcionamiento del vehículo.

- No permitir la utilización del vehículo asignado a terceras personas.

- Custodiar diligentemente el vehículo durante el tiempo de disfrute.

- Abstenerse de instalar en el vehículo elementos o aparatos por cuenta propia, así como de realizar reparaciones o encargar la realización de éstas.

- Los usuarios de los vehículos pertenecientes a la Clase B velarán por la realización puntual de las revisiones técnicas procedentes y mantendrán los mismos en buen estado de limpieza.

**14. artikulua.**– Zerbitzuz kanpoko ibilgailuak gordetzen modua.

Baliabide Orokoren Zuzendaritzak beharrezko neurriak emango ditu zerbitzuz kanpo dauden A motako ibilgailuak gordetzen direla bermatzeko. Sail edo era-kunde autonomo bakoitzari dagokio beren goi-karguei edo administrazio-organoei izendatutako ibilgailuen gainean beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea.

**15. artikulua.**– Erakundeak ezagutarazteko modua.

Baliabide Orokoren Zuzendaritzak erabakiko du, hala dagokionean, zenbait ibilgailu errrotulatzea kome-nigarria denetz, erakundeak ezagutarazteko Eusko Jaurlaritzak emandako arauet atxikiz betiere, D kategoriako ibilgailuak bereziki.

**16. artikulua.**– Txoferrak.

Dekretu honetan ohartemandako txoferren izenda-pena, berez eginkizun hori duten eta Administrazioko Parke Higikorrari atxikita dauden langileen artean egingo da.

Erabiltzen dituzten kotxeen mantendimendu egokiaz arduratu dira txoferrak, behar bezala erabiliko dituzte kotxeak eta, nolanahi ere, Dekretu honen 13. artiku-uan ezarritakoari eutsiko diote.

**17. atala.**– Kalteen eta administrazio zigorren ondoriozko erantzukizuna.

1.– Ibilgailuen erabiltzaileek izendatutako ibilgai-luari egindako kaltea edo beste ondasun edo pertsona batzuei egindako kalteen erantzukizundunak izango dira, baldin eta arduragabekeriaz erabiltzen badituzte. Administrazioak, horrela gertatuz gero, erabiltzaileei ordainaraziko die ondoriozko erantzukizun zibila edo administratiboa.

2.– Erabiltzaileen jardueraren ondoriozko egintzen-gatik jasotako zigorak eta, salaketak garaiz jakinarazi ez direlako edo eginbeharrik bete ez direlako sortutako bestelako kalte ekonomikoak, erabiltzaileek berek ordainduko dituzte edo, bestela, erabiltzaileei ordaina-razi egingo zaizkie.

**18. artikulua.**– Araubide orokorreko salbuespenak.

Izendapen araubideari eta ibilgailuen erabilpenari buruz Dekretu honetan ezarritakoa aplikatu barik utzi daiteke segurtasun arazoak daudenean eta Herrizaingo Sailak hala eskatzen badu. Horrelakoan Sailak eman-dako jarraibideei eutsiko zaie. Arau horiek, ahal dela, bateragarriak izango dira Administrazioko Parke Hi-gikorreko jarduteko araubidearekin eta kontutan har-tu beharko dute gauzazko baliabideak eta giza baliabi-deak daudenetz.

**Artículo 14.**– Depósito de los vehículos fuera de servicio.

La Dirección de Recursos Generales adoptará las medidas necesarias para garantizar el depósito de los vehículos pertenecientes a la Clase A cuando se encuentren fuera de servicio, correspondiendo a cada Departamento u Organismo Autónomo la adopción de las medidas que estime precisas en relación a los vehículos asignados a sus Altos Cargos u órganos administrativos.

**Artículo 15.**– Identidad Corporativa.

La Dirección de Recursos Generales decidirá en cada caso sobre la conveniencia de que determinados vehículos sean rotulados, conforme a las normas reguladoras de la identidad corporativa del Gobierno Vasco, especialmente los vehículos correspondientes a la categoría D.

**Artículo 16.**– Conductores.

La asignación de conductores prevista en el presente Decreto se llevará a cabo de entre el personal que ostente tal condición y esté adscrito al Parque Móvil de la Administración.

Los conductores velarán por el adecuado mantenimiento de los vehículos que utilicen, harán una utilización conveniente de los mismos y, en todo caso, estarán a lo establecido en el artículo 13 del presente Decreto.

**Artículo 17.**– Responsabilidad por daños y sanciones administrativas.

1.– Los usuarios de los vehículos responderán de los daños que ocasionen al vehículo asignado o a otros bienes o personas por utilización negligente de los mismos. La Administración repercutirá a los usuarios la responsabilidad civil o administrativa que le fuera exigida.

2.– Las sanciones impuestas por hechos imputables a la actuación de los usuarios, así como los recargos y otros perjuicios económicos derivados de la falta de diligencia de aquellos en la comunicación de las denuncias y cumplimiento de sus obligaciones, serán abonadas por los usuarios o, en su caso, repercutidos a los mismos.

**Artículo 18.**– Excepción al régimen general.

Por razones de seguridad y a instancia del Departamento de Interior podrá exceptuarse la aplicación del presente Decreto en cuanto al régimen de asignación y uso de los vehículos, siguiéndose en tal caso las instrucciones del mencionado Departamento, las cuales habrán de procurar ser compatibles con el régimen de funcionamiento del Parque Móvil de la Administración y su disponibilidad de medios materiales y humanos.

## III. KAPITULUA

## BESTELAKO XEDAPENAK

**19. atala.**— Gastuen araubidea.

1.— Ogasun eta Herri Administrazioko Baliabide Orokorren Zuzendaritzak Administrazioko Parke Higikorreko ibilgailuak erosi, hornitu eta konpontzearen ondoriozko gastuak hartuko ditu, bai eta, beroiek era-biltzearen ondoriozkoak ere.

2.— D motako ibilgailuek sortutako gastu guztiak aurreko idatz-zatian ezarritakotik at gelditzen dira eta dagokion sailak edo erakundeak ordaindu beharko ditu. Dekretu honen 7. atalak aipatzen dituen izendapenaren ondoriozko gastuak, halaber, kanpo gelditzen dira eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzak ordainduko ditu.

3.— Aurreko paragrafoan ezarritakoa dena dela, beran zehaztutako ibilgailuak Administrazioko Parke Higikorraren barruan egongo dira eta ondoren zehazten da kontratatzeko araubidea.

**20. artikula.**— Kontratatzeko araubidea.

Administrazioko Parke Higikorra osatzen duten ibilgailuen kontratazioa eta, oro har, zerbitzuaren ku-deaketa egokia egiteko beharrezko diren horniduren eta zerbitzuen kontratazioa, Euskal Autonomia Erkidego-ko Administrazioaren kontratazioari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuari atxikiz egingo da. Kontratazio Batzorde Nagusia izango da izapidezen diren kontratazio espedienteen ardura hartuko duena. Batzordea dekretu horren 10. artikulan esandako moduan osatuko da, dekretuaren beraren 18. artikulan ohartemandako kasuetarako. Dekretu horretako V. Kapituluaren ohartemandako espedientei dagokienez, haitan kontratazio-organo moduan diharduenak hartuko du ardura.

**21. artikula.**— Erregistroa.

Parke Higikorreko Erregistroa sortzen da. Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzak izango du erregistroa kudeatzeko ardua eta kudeatu ere dekretu hau garatzeko emango den aginduaren bidez finka daitezen araei atxikiz. Agindu horretan zehaztuko da Administrazioko Parke Higikorra osatzen duten ibilgailuei buruz erregistroan sartu beharreko informazioa.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***— Ibilgailuen atxikipena.

Dekretu honen esparruan sartuta egon eta berau indarrean sartzen denean dekretuaren eraginpeko sail edo erakundeei atxikita dauden ibilgailu guztiak Adminis-

## CAPÍTULO III

## OTRAS DISPOSICIONES

***Artículo 19.***— Régimen de los gastos.

1.— La Dirección de Recursos Generales del Departamento de Hacienda y Administración Pública asumirá el gasto derivado de la adquisición, entretenimiento y reparación de los vehículos del Parque Móvil de la Administración, así como los derivados de la utilización de los mismos.

2.— Quedan exceptuados de lo establecido en el apartado anterior la totalidad de los gastos referidos a los vehículos de la Clase D, que serán asumidos por el Departamento u Organismo al que estén asignados y los derivados de la asignación a que se refiere el artículo 7 del presente Decreto, que serán asumidos por la Presidencia del Gobierno.

3.— No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los vehículos afectados por el mismo estarán integrados en el Parque Móvil de la Administración y el régimen de contratación será el establecido en el artículo siguiente.

***Artículo 20.***— Régimen de contratación.

La contratación de los vehículos que integran el Parque Móvil de la Administración, así como de los suministros o servicios en general, que sean precisos para la adecuada gestión del servicio, se regirá por el Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El conocimiento de los expedientes de contratación que se tramiten corresponderá a la Comisión Central de Contratación constituida en la forma prevista por el artículo 10 del Decreto citado para los supuestos contemplados en el artículo 18 del mismo. Actuará como órgano de contratación quien ostente tal condición en los expedientes contemplados en el Capítulo V del Decreto referido.

***Artículo 21.***— Registro.

Se crea el Registro del Parque Móvil, cuya gestión corresponderá a la Dirección de Recursos Generales del Departamento de Hacienda y Administración Pública, conforme a las normas que se establezcan mediante Orden de desarrollo del presente Decreto. Accederá al citado Registro la información que se determine relativa a los vehículos que integran el Parque Móvil de la Administración.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***— Adscripción de los vehículos.

Todos los vehículos incluidos en el ámbito del presente Decreto que a su entrada en vigor estuvieran adscritos a los Departamentos u Organismos afectados,

trazioko Parke Higikorrari gelditzen dira atxikita eta, ondorioz, beharrezko administrazio jarduerak burutu beharko dira parkeari atxikitzeo.

**Bigarrena.**— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratacio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren Seigarren Xedapen Gehigarriaren aldakuntza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratacio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren Seigarren Xedapen Gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Ertzaintzaren poliziaren parke higikorra osatzen duten ibilgailuetarako eta Segurantza Administrazioko zerbitzu laguntzaileetarako kontratacio organo eta mahaiari dagozkien ahalmenak Herrizaingo Sailaren esku geratzen dira.»

**Hirugarrena.**— Izaiki publikoak eta sozietate publikoak.

Dekretu honen 2. eta 3. artikuluen ondoriozko esparruaren kaltetan barik, Jaurlaritzak, Ekonomi Gaitearako Ordezko Batzordearen bidez eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren proposamenez, Zuzenbide Pribatuko Izaiki Publikoek eta Sozietate Publikoek ibilgailuak erosteko eta ibilgailu horiek erabiltzeko araei buruz jarraitu behar dituzten irizpideak finkatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko osoan tratamendu homogeneoa ematen dela bermatzeko.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

**Bakarra.**— Indargabetuta gelditzen dira irailaren 24ko 504/1991 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Parke Higikorraren jarduerari buruzko arauak ezartzen ditu) eta Herrizaingo sailburuaren 1993ko otsailaren 24ko Agindua (Eusko Jaurlaritzaren Parke Higikorreko ibilgailuen erabilera baturuzko arauak ezartzen ditu).

Indargabetuta gelditzen dira, halaber, dekretu honeitan ezarritakoaren aurka edo kontraesanean dauden maiala bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Araudi bidezko garapena eta diru-aurrekontuen aldakuntza.

1.— Baimena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari dekretu hau garatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

2.— Baimena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dekretu hau betearazteko beharrezko diren diru-aurrekontuen aldakuntzak egiteko.

quedan adscritos al Parque Móvil de la Administración, debiendo realizarse las actuaciones administrativas precisas a tal fin.

**Segunda.**— Modificación de la Disposición Adicional Sexta del Decreto 136/1996, de 5 de Junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Disposición Adicional Sexta del Decreto 136/1996, de 5 de Junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, queda redactada como sigue:

«Corresponden al Departamento de Interior las facultades correspondientes al órgano y mesa de contratación en relación con los vehículos integrantes del parque móvil policial de la Ertzaintza y los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad».

**Tercera.**— Entes Públicos y Sociedades Públicas.

Sin perjuicio del ámbito resultante de los artículos 2 y 3 del presente Decreto, el Gobierno, a través de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos establecerá, a propuesta del Departamento de Hacienda y Administración Pública, los criterios a seguir por los Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas, en cuanto a la adquisición de vehículos y sus normas de utilización, a fin de garantizar un tratamiento homogéneo en el conjunto de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

**Unica.**— Se deroga el Decreto 504/1991, de 24 de septiembre, por el que se establecen las normas de funcionamiento del Parque Móvil de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la Orden de 24 de febrero de 1993, del Consejero de Interior, por la que se establecen las normas de utilización de vehículos pertenecientes al Parque Móvil del Gobierno Vasco.

Asimismo, se derogan cuantas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan o contradigan lo dispuesto en el presente Decreto.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Desarrollo reglamentario y modificaciones presupuestarias.

1.— Se faculta a la Consejera de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

2.— Se autoriza al Departamento de Hacienda y Administración Pública para la realización de las modificaciones presupuestarias que sean precisas para la ejecución del presente Decreto.

***Bigarrena.*** – Lanpostuen zerrendak.

Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta Herri-zaingo Saileko lanpostuen zerrendak aldatu beharko dira dekretu honetan ezarritakoari egokitzeko. Aldakun-tza hori, gehienez ere, hiru hilabeteko epean egin be-harko da.

***Hirugarrena.*** – Indarra hartza.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argita-ratzen den egunaren bihamarunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko uztailaren 27an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

***Segunda.*** – Relaciones de Puestos de Trabajo.

En el plazo máximo de tres meses se procederá a la modificación de las Relaciones de Puestos de Trabajo de los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y de Interior, a fin de adecuarlas a lo dispues-to en el presente Decreto.

***Tercera.*** – Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguien-te de su publicación en el Boletín Oficial del País Vas-co.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 1999.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## **JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**Zk-3574**

AGINDUA, 1999ko uztailaren 15ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. Agindu honen bitartez, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluan-ren Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartu da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak organo aholku-emaileak eta partaidetza-organoak arautzen ditu IV. Idazpuruan, eta 16. artikulua-ren bidez Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilua sortu du, organo aholku-emaile moduan. 16. eta 17. arti-kuluetan, berriz, Kontseiluaren osaketari eta eginkizunei buruzko ildo nagusiak daude ezarrita; aspektu horiek, hain zuzen, irailaren 16ko 204/1997 Dekretuan arautu ziren. Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluan-ren osaketa eta funtzionamendu-erregimena arautzen du 204/1997 Dekretuak. Dekretu hori azaroaren 3ko 298/1998 Dekretuak aldatu zuen.

Irailaren 16ko 204/1997 Dekretuko 10. artikuluan ezarrita dagoenez, Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua prestatza eta aldatzea. Orobak, Sailean gizarte zerbitzuen gaineko eskuduntza daukan titularrak onartu behar du Erregelamendu hori.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak Kontseiluaren Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua prestatu duenez, honako hau

## **DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**Nº-3574**

ORDEN de 15 de julio de 1999, del Consejero de Jus-ticia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se aprue-ba el Reglamento de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social.

La Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, en su Título IV regula los órganos consultivos y de participación, y consecuentemente en su artículo 16 crea el Consejo Vasco de Bienestar Social como órgano de carácter consultivo y establece, en los artículos 16 y 17, las líneas generales de su composición y funciones, aspectos que fueron regulados en el Decreto 204/1997, de 16 de septiembre, de composición y régimen de fun-cionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social, mo-dificado por Decreto 298/1998, de 3 de noviembre.

El artículo 10 del Decreto 204/1997, de 16 de sep-tiembre, establece que corresponderá al Pleno del Con-sejo la elaboración y modificación de su reglamento de funcionamiento, que deberá ser aprobado por el titular del Departamento competente en materia de servicios sociales.

Habiendo sido elaborado el Reglamento de Funcio-namiento por el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social